

EUSKAL HERRIA SOZIALISTA

Ezker Iraultzailearen aldizkaria

www.euskalherriasozialista.net

69 zenbakia - euro 1
laguntzarekin: 2 euro

Muntaia polizial
eta judizialik **EZ!**
Altsasuko gazteak
ASKATU!



**Ikasle Sindikatua irakasleen
borrokarekin bat eginez,**
hezkuntza publiko eta itunpekoan,
EAJ eta PSeren Eusko Jaurlaritzaren murrizketen aurka

Eskubide demokratikoen aurkako ofentsiba neofrankistaren aurrean Kaleak hartu behar ditugu!

Katalunian urriaren 1etik gaur egun arte garatu den egoera politikoak ikasgai garrantzitsuak ditu Euskal Herrirako. 155aren bloke monarkikoak porrot ikaragarria jaso zuen abenduaren 21eko hauteskundetan. Hala eta guztiz ere, erreakzioak gogortu egin du ofentsiba autoritaria, mezu argi bat bidaliz: 155ak jarraitu egingo du bere gustuko president eta Goberna egon arte. Eta hain zuzen ere, PDeCateko eta ERCko buruzagiek burua makurtzen duten bakoitzean eta kaleko mobilizazioa alde batera uzten denean, Espainiako gobernuak zein estatu-aparatuak errepresioarekin gogorrago erantzuteko aprobetxatzen dute, herri oso bat umiliatzeko helburuarekin.

Consellersen aurkako prozesu judizialez geroztik, PDeCateko eta ERCko buruzagiek adierazpen mordoa egin dute urriaren leko erreferendumari uko eginez. DUI erabat sinbolikoa zela esan dute eta beharrezkoa dela estrategiaz aldatzea, Govern "eraginkor" bat eratuz. Zentzu honetan, Puigdemonten inbestidura bertan behera uztea, Moncloaren aginduetara dagoen Auzitegi Konstituzionalaren aurrean men egitea izan da. Jordi Sanchez president berria izateko proposamenak arazo berbera du, ordea. Katalunian 4 eserleku bakarrik lortu dituen PP eta estatu-aparatu espainola prest daude, hautestontzien emaitzaren gainetik, beraiek erabakitzeke president berria zein

izango den eta nola jokatu duen. 155ak betiko iraun dezala nahi dute, eta hori altxatzean, zerbait formala izan dadila.

Ikasgaiak Euskal Herriarentzat

Klase kapitalista, izan katalana, espainola edo euskalduna, guztiz izuturik geratu zen Kataluniako ez-tanda sozialarekin. Zuzenean ikusi zuen kaleetan milioika gazte eta langilek erakutsi zuten indar ikaragarria. Errepresio indarrak erabat ezgaiturik utzi zituzten. Horregatik, erreakzioa batu egin da eta mugimendu honi ahaztuko ez duen lezioa eman nahi dio. Esperientzia horrek argi eta garbi erakusten du ezinezkoa dela erabakitzeke eskubideak lortzea borroka iraultzailerik gabe eta borroka hori amaierara arte eramateko gai den bakarra langile klasea eta gazteria dela. Horregatik da hain funtsezkoa erabakitzeke eskubidearen aldeko borroka kapitalismoaren logikarekin apurtuko duen alternatiba batekin elkartzea; kasu honetan, errepublika sozialista katalana defendatuz. Ezinbestekoa da, borrokaren ardatza pribilegio kapitalistekin amaituko duen errepublika izatea, herriaren, langileen eta gazteriaren alde egingo duen errepublika.

PDeCat eta ERCko buruzagi burgesek eta burges txikiek argi utzi dute ez dutela entzun ere egin nahi borroka honek kapitalismoaren mugak gainditzearen aukera. Beren bizkarren gainean murrizketen edota ustelkeriaren arduradun izatearen zama dute. CUPEko zuzendari-tzako kideek gogor kritikatu dituzte





PDeCat-etik eta ERCtik amore emateko egin diren adierazpenak eta “errepublika gauzatzeaz” hitz egin dute. Baina adierazpenez gain, horien menpe jarrita ezinezkoa izango da 155aren blokearen ofentsiba garaitzea.

Euskal Herrian, EAJk eztabaida politikoaren erdigunean ezarri nahi du Lakuatik, autogobernuaren ponentzia eta estatus politiko berriaren testu artikulatua. Argi dago beste maniobra bat baino ez dela. Ahaztuarazi nahi ditu PPrekin eginiko itunak, Katalunian erabakitzeako eskubidearen aldeko borrokaren aurka izan duen paper aktiboa, Eusko Jaurlaritzatik langileen eta gazteen aurka egiten ari diren eraso politikak, geroz eta gehiago entzuten diren ustelkeria kasuak... PPrekin eta PSErekin murrizketen aurrekontuak eta enpresariei zergak jaistea itundu ostean, orain EAJk eskua luzatzen die EHBilduri eta Elkarrekin Podemosi. Estatus berriaren testuan erabakitzeako eskubidea sartzeaz hitz egiten duenean, bere benetako asmoa aurpegia garbitzea da, baliorik ez duen orri bat ateratzeko eta eztabaida parlamentuko ateen barnean kokatzeko.

Hala ere, bai Elkarrekin Podemosen eta bai EHBilduk planteatu dute kointzidentzia handiak daudela eremu horretan aurrera egiteko. Horri dagokionez, EHBilduk “autonomiatik subirautzara, estatus berri baterako oinarriak” izeneko dokumentua argitaratu du. Dokumentu horrek, Ezker Abertzalearen estrategia politikoan atzera pauso nabarmena adierazten du. Eztabaida parlamentariora bakarrik bideratzen den hitz potoloen testu horretan planteatzen da posible dela egungo EAEko markotik “Euskal Estatu Erkidegora” abiatzea. Puntuetako batean hitzez hitz halaxe dio: “Bideragarriagoa izango litzateke Espainiako Konstituzioaren atariko tituluan biltzen den printzipio demokratikoaren interpretazio ireki eta integrala egitea, 1979ko Autonomia Estatutua-ren eta Konstituzioaren beraren xedapen gehigarrietan jasotako eskubide historikoen printzipioarekin eta xedapen-printzipioarekin batera. Printzipio konstituzional horiek ahalbidetzen dute lurralde-botereen arteko harreman berri baterantz, berdintasun politikoan oinarritutako harreman baterantz aurrera

egitea, Espainiako Konstituzioan erreforma espresurik egin gabe”.

Planteamendu horretan, Kataluniako ikasgaiak hankaz gora ageri dira, amaierarik eta irtenbiderik gabeko etapa infinituen estrategia erreformista batean. Erabakitzeako eskubidearen aldeko borroka prozesu bat da, noski, klase arteko borrokaren barruan ematen dena, ordea. Parlamentuko mugimendu eta eztabaidek soilik EAJri egiten diote mesede, eta tarte ikaragarria uzten dute bere interesen arabera manio-bratzeko. EAJren eskutik 2019rako estatus berri baten kontsulta planteatzea erabateko akatsa da. Praktikan, erabakitzeako eskubidearen alde aurrera pausorik ez emateaz gain, bitartean bake soziala mantentzea esan nahi du, kaleko borroka bertan behera utziz eta EAJ eta bere erasoei estaldura emanez.

Erabakitzeako eskubidearen aldeko borroka zapaltzen gaituen sistema kapitalistaren aurkako borroka da

Horren aurrean, oso konkretua da Euskal Herrian milaka gazte eta langilek jasaten duten errealitatea. Prekarietatea, lan esparruan eta sozialki izurrite baten moduan zapaltzen ari da. Lurralde guztian zehar ari gara enpresa itxierak, plantilen murrizketak, EREak, etab. ikusten. Gazteok ere jasaten dugun langabezia edo esplotazioa, enpresariak ederki aberasten ari diren bitartean. Baina geroz eta ugariagoak dira lan gatazkak eta borrokan dauden langileak ere. Borroka horiek guztiak bateratu behar dira lehenbailehen, langileen borroka koordinadoretan, modu asanbleario eta demokratikoan antolatuz horiek.

Horregatik beharrezkoa da erabakitzeako eskubidea zapalkuntza kapitalistarekin elkartzea. Kaleko borroka ardatz planteatuko duen ezkerria behar dugu, programa iraultzaile batekin, ekintzetan defendatuko duena Euskal Herri Sozialista baten aldeko borroka.

Erdoganen erregimenak kurduen lurraldea bonbardatu eta inbasioa jarri du abian

Kurduen aurkako gerrarik EZ!

SOSYALIST ALTERNATIF (CIT · TURKIA)
ETA PATRONSUZ DUNYA
erakundeen adierazpen bateratua

Erdoganen erregimenak operazio militarra hasi du Afrinen, Siria ipar-ekialdeko hiri kurduan, Turkiako Herriaren Alderdi Errepublikanoko (CHP) oposizio sozialdemokrata deitutakoaren babesarekin. Egun Turkia, Irak, Iran eta Siriaren artean zatituta dagoen herri kurduaren askapen nazionalaren borrokari esker lortutako garaipenak jo puntuan dituzte lau herrialde horietako erregimenek eta AEBko eta Errusiako indar inperialistek.

Horregatik, dei egiten diegu langile eta sindikatu guztiei eraso horren aurka altxatzeko. Kurduen aurkako gerra bat da, eta horren atzean dagoen arrazoia sinplea da: herri kurdua geografikoki zatituta dago, lau herrialdek zapaltzen dute, eta oinarritzko eskubide demokratiko-nazionalak ukatu dizkiete. Kurduak horietako herrialde batean eskuratzen duten edozein lorpenek eskubide demokratiko gehiago aldarrikatzea ekarriko luke eta, beraz, gainerako herrialdeetan herri kontzientzia nazionala eratzeke prozesua azkartuko litzateke. Hain zuzen ere, horrek kezkatzen ditu gainerako herrialdeetako erregimen zapaltzaileak. Hori dela eta, edozein bitarteko erabiltzen dute, baita ge-

rrak eta sarraskiak ere, lorpen guztiak suntsitzeko.

Telekomunikabideek, zeinak Erdoganen zerbitzura dagoen propaganda ministerio bezala jarduten duten, arrazismoa sustatzen dute masen kontzientzian, eta okupazio militar hori “terrorismoaren aurkako” operaziotzat aurkezten dute. Gezur erraldoia da, Erdoganen erregimena bera izan baita Sirian gerra zibila sustatu duena eta Sirian eta beste herrialde askotan odol asko isuri duten ISIS bezalako erakunde terrorista jihadistak babestu dituen; eta ez du zalantzarik izan talde jihadistak erabiltzean, helburu politikoak erdiesteko. Erdoganen erregimenak jihadistien autobusak agerian garraiatu ditu Turkiatik Afrikan okupazio kanpaina honetan. Gainera, Errusiako eta Siriako erregimenekin negoziaketan aritu da Alepoko egoeraz eztabaidatzeko lehenik eta, ondoren, Idlib-go egoeraz hitz egiteko; horietan, erakunde terrorista jihadistien “ordezkari” izan da, eta horrek argi uzten du Erdoganen erregimenaren eta jihadistien artean dagoen harreman estua. Bestalde, Turkiako erregimenak Estatua eta larrialdi dekretuak baliatzen ditu oposizioa isilarazteko. Gerra honekin, Erdoganen erregimenak aukera berriak sortu nahi ditu bere boterea indartzeko, “larrialdi egoerari” orain “gerra egoera” gehituta.

Gerra horrek herrialdean atmosfera nazionalista indartzeko balioko dio eta oposizioari jarduteko aukera kenduko dio. CHPk, bere burua sozialdemokratatzat duen alderdi kemalistak, AKP-MHP koalizioarekin norgehiagoka ari da, “abertzaleago” nor den erakusteko.

Benetako etsaiak ez dira Afringo herritarrak, Erdoganen erregimena baizik, zeinak aldarrikapen demokratiko guztiak zapaltzen baititu estatu aparatuen indarrarekin. Langile klasearen baldintzak okertu egin dira, eta beren seme-alabak gerrara bidali behar izan dituzte. Erdoganen erregimena kurduen aurkako gerra erabiltzen saiatuko da bere erregimena zalantzan jartzen duen langile klasearen aurka. Horrela, errazagoa izango zaio estigmatizatzea eta eskubide demokratikoak defenditzen dituen “terrorismoa babesteaz” akusatzea.

Datozen egunetan ia ziur ikusiko dugu metalurgiako langileen greba debekatuko dutela. Kütahya hirian egindako ekitaldi publiko batean, Erdoganek kontratu mugagabea aldarrikatzen ari ziren azpikontratutako langileen aurka egin eta halaxe esan zien: “Ez dituzue azalpenak entzuten, ez duzue jarraitzen, ez dakizue (...) lehenago parlamentuan esan genuen, plazetan ere bai, ez duzue ulertu nahi”. Eta hori guztia esan zuen okupazio militarren



kanpaina iragartzen zuen bitartean. Horrek erakusten du Erdoganek bere buruarengan konfiantza duela, herrialdean duen botere absolutuaren ondorioz. Arriskua dago egoera honek aurrera jarraitzeko gerragatik eta arrazismoak, nazionalismoak, sektarismoak eta chauvinismoak langile klasean eragin duen zatiketagatik.

Alderdi eta telekomunikabide guztiak ados daude Erdoganaren erregimenarekin eta defendatzen dute operazio militarren atzean dagoen arrazoia “terrorismoaren aurkako borroka” dela eta “kurdu” hitza erabiltzea saihestu nahi dute, baita beren burua sozialistatzat duten taldeek ere. Hori dela eta, Mediterraneora heltzen zen Rojava-ri “Pasabide kurdua” deitzeari utzi diote eta “Terrorismoaren pasabidea” deitzen hasi dira. MHP alderdi ultranazionalista eta arrazistak ere esaten du “ezin esan daiteke[ela] MHP kurduen aurka dagoela”, nahiz eta bere lehen kezka den kurduen kontzientzia nazionala garatzea.

Kurduak beren etorkizunaz erabakitzeke eskubidea izan behar du-

te, gainerako herriek bezala, Siriak, Irakek, Iranek eta Turkiak bezala. Herri kurduaren kontzientzia nazionala eratzeak eta eskubide demokratikoak aldarrikatzeak zapaldutako langile klasearen kezka izan behar du, Turkia osoko langile klasearen batasunaren arrakasta bermatzeko baldintza baita. Horregatik, beharrezkoa da Turkiako langile klaseak kurduen eskubideak defendatzen. Horrela bakarrik izango da posible kurduen konfiantza eta babesa erdiestea eta eskubide demokratikoen aldeko borroka klaseko borrokarekin uztartzea.

Ez kurduak, ez Siriako herritarak, horiek ez dira gure etsaiak. Gure benetako etsaia Erdoganaren diktadura da, zeinak enpresariak, lapurrak, ustelak, hiltzaileak eta erakunde terrorista jihadistak babesten dituen eta langileei eta zapalduen langabezia, pobrezia, zapalkuntza, odola, malkoak, gerra eta heriotza besterik eman ez dion. Diktaduraren biktimek, erregimen honen biktimek bakarrik suntsi dezakete erregimena: turkiarrek, kurduak, alebiek, sunitek, hau da, herri zapaldu guztiek eta langile klaseak.

AKP, CHP, MHP eta İYİ alderdiek, alderdi nazionalista eta chauvinista guztien antzera, saiatzen ari dira erakusten langileek eta klase kapitalistak interes berberak dituztela, “nazio” berekoak baitira. Edonola ere, interes horiek ez datoz bat. Hori dela eta, beharrezkoa da gure klasea alderdi nazionalista kapitalisten aurka antolatuko duen langile alderdi bat sortzea. Langile klasearen batasunak soilik gera ditzake gerrak, inperialistak eta bere kolaboratzaileak. Horregatik, langile klasearen erakunde guztiei, batez ere sindikatuei, eskatzen diegu estatuturkiarrak inperialismo errusiar eta ipar-amerikarraren laguntzaz kurduen aurka deklaratu duen gerra honen aurka ager daitezen.

Okupazioari ez!

**Esan ez Afrinen aurkako erasoari!
Sindikatuak greba orokorra deitu
behar dute gerraren aurka!**

**Klase batasuna nazionalismoaren
eta sektarismoaren aurka!
Gerraren, zapalkuntzaren,
esplotazioaren eta pobrezia-
ren aurka, Ekialde Hurbileko
konfederazio sozialistaren alde!**

Ikasle Sindikatua irakasleen borrokarekin bat eginez, hezkuntza publiko eta itunpekoan, EAJ eta PSEren Eusko Jaurlaritzaren murrizketen aurka

IKASLE SINDIKATUA

Espainiako Gobernuak ezartzen dituen murrizketa berdinak ari da ezartzen Eusko Jaurlaritza azken zortzi urteetan EAEn. Irakasle kopurua murriztu dute, soldatak jaitsi dira, ordezkapenik ez da egiten eta klaseetan ikasle masifikazioa igo egin da. EAJk kontrolatutako Hezkuntza Kontseilaritzak LOMCEren aurkako diskurtsoa erabili arren, Heziberri bitartez plan frankista hori ari da aplikatzen. Ikasle

eta irakasleak lasai egotea nahi dute, hauek mobilizatu gabe, sindikatuei elkarriketa eta negoziaziota-rako deiak eginez, horrela murrizketak aplikatzen jarraitzeko.

EAEko hezkuntza publikoa estatutu guztian egiten ari diren murrizketa berberak jasaten ari da. Baina gainera, itunpeko ikastetxeetan kopurua estatuan dagoen altuena da –diru publikoarekin ordainduriko ikastetxe erlijiosoak. Honek esan nahi du, hezkuntza publikoan murrizketak gauzatzen diren bitartean

elizak kontrolatutako itunpeko zentro hauei geroz eta gehiago bideratzen zaizkiela baliabide publikoak. Horrek frogatzen du dirua badagoe-la. EAJk kontrolatutako instituzioak harro azaltzen dira ekonomiaren eta diru sarrerara fiskalen hazkundeaz, baina gero tarte hori erabiltzen dute enpresariei Sozietate Zerga murrizteko eta ez atzera botatzeko hezkuntza publikoko murrizketak.

Ikasle Sindikatutik uste dugu bide bakarra EAJ eta PSEren Eusko Jaurlaritzaren eta Rajoy-ren gobernuaren murrizketei aurre egiteko greba eta mobilizazioak direla. Babestu egiten ditugu martxoak 13 eta 14rako deitua dagoen greba hezkuntza publikoan eta baita itunpeko ikastetxeetan aurrera eramaten ari diren mobilizazioak ere, 20an grebara deituz. Uste dugu itunpeko ikastetxeetako irakasleen aldarrikapenak eta hezkuntza publikokoenak berdinak direla. Azken batean, itunpekoetan elizaren patronalari zuzenduta badaude ere, lan baldintzak hobetzea dute helburu. Hezkuntza publiko, doako, euskalduna eta kalitatezkoa, hezkuntza laiko bat izatetik ere igarotzen da, aginte erlijiosoaren monopolioari lotuta egon gabe. Elizak urteetan irabazi milioi-dunak izan ditu hezkuntzako hitzarmenei esker eta gainera baldintza okerragoak ezarri bai ikasle eta bai irakasleei. Soluzioa





ez da diru gehiago bideratzea zentro hitzartuetara.

Eusko Jaurlaritzak geroz eta diru gehiago oparitu dio Kristau Eskolaren patronalari irakasleen egoerak hobetu gabe. Hain zuzen ere, patronal horiek jaiotze tasa eta matrikulazioen jaitzieraren aitzakiarekin murrizketa plan berri bat prestatzen ari dira itunpeko ikastetxeetarako. Elizari milioika euro oparitzen dizkien bitartean, Cristina Uriarte sailburuak, eskaini duen hezkuntza publikoko langile kopururen igoera erabat lotsagarria da eta inondik ere ez da nahikoa benetako beharrazanezi aurre egiteko. Ez du inolako ekarpenik planteatzen 2010az geroztik irakasleek galdutako eskubideen aurrean.

Kalitatezko hezkuntza publiko baten alde borrokatzea, institutu eta unibertsitate publikoetako baliabideak sendotzeko borrokatzea inplikatzeko du. Horrenbestez, Ikasle Sindikatuko kideak ELA, LAB eta Steilasek martxorako eta etorkizunerako deitutako mobilizazioak babesten ditugu. Gainera itunpeko ikastetxeetako irakasleen borroka ere babesten dugu eta, funtsean borroka berbera direnez, uste dugu beharrezkoa dela sindikatuak borroka horiek bateratzea. Hezkuntza sare bakarra nahi dugu, erabat publikoa, eta eskari osoa asetzeko gai izango dena. Egun dauden itunpeko ikastetxe guztiak publiko egin eta bertan txertatzea eskatzen dugu, Elizaren eta enpresarien atzaparretatik

kanpo, bertako langileak ere publiko egin eta mantenduz eta beren baldintzak hobetuz. Ikastolek ere sare honetan beharko sartu beharko lukete, funtsezko baldintza horietan, beti ere euskararen alde eta pedagogikoki garaturiko programak errespetatuz, garatzeko baliabideak handituz eta horiek zabaltzea ahalbidetuz. Soilik hezkuntza komunitate osoaren borroka bateratuak gelditu ditzake euskal eskuinaren eta elizaren erasoak.

**Hezkuntza publiko, doako, laiko eta euskaldunaren alde!
Ez, Eusko Jaurlaritzaren murrizketei!
Ez LOMCE, ez Heziberri!
Borroka da bide bakarra!**

**Defendatu sozialismoaren aldeko ideiak gurekin!
Lagun iezaguzu aldizkaria Euskal Herri osoan zabaltzen!**

www.euskalherriasozialista.net • euskalherriasozialista@hotmail.com • Tel.: 685 708 281
Twitter: @EHSozialista - @EzkIraultzailea • Facebook: Ezker Iraultzailea - Euskal Herria Sozialista

EGIN ZAITEZ HARPIDEDUN! LAGUNDU LANGILEEN PRENTSA ZABALTZEN!!!
Lagun iezaguzu sozialismoaren aldeko borroka bultzatzen zure harpidetzarekin!!
Urteko harpidetzak (6 ale) 10 euro balio du.

ELOY VAL DEL OLMO

Adurrek, Jokinek eta Oihanek urte eta erdi baino gehiago daramate Navalcarnero, Aranjuezeko eta Estremerako kartzeletan, etxetik 400 km baino gehiagora. Beren senitatekoek 250.000 km egin behar izan dituzte eta 60.000 euro gastatu.

Atxilotzeko momentuan, 19 eta 24 urte bitartean zituzten zortzi gazteek. Auzitegi Nazionaleko fiskaltzak 375 urteko zigorra eskatzen du guztira. Zehazki, zortzi prozesatuetakoz zazpirengatik eskatu du kalte terroristagatik kondenatuak izan daitezela eta 12 urte eta erdiko kartzela zigorra eskatu du delitu bakoitzagatik; orotara, 50 urteko zigorra bakoitzarentzat. Oihani, gainera, mehatxu terrorista egitea ere leporatu zaio eta 12 urte eta erdi gehiagoko kartzela zigorra eskatu du, 62 urte eta 6 hilabete. Ainara Urkijo zortzigarren akusatuarentzat 12 urte eta erdiko kartzela zigorra eskatu dute mehatxu terrorista egitea leporatuta. Era berean, 40.000 euroko kalte-ordaina eskatu dute guardia zibilei eta beren bikotekideei ordaintzeko, kalte moralengatik.

Fiskaltzak duen aurpegi bikoitza eta arbitrarietatea ikus daiteke adibide batekin: 2012ko apirilaren 30ean Francoren bilobak Guardia Zibilen patruila baten aurka egin zuen, jazartzen ari zitzaion bitartean. 30 hilabeteko kondena jaso berri du, autoritatearen aurkako atentatua egiteagatik eta arduragabeki gidatzeagatik. Eta ez da kartzelara joango, kondenek ez baitituzte 2 urte gainditzen.

Altsasuko hiru gazteak preso daude behin-behinean eta FIESe-tan terrorismoaz akusatutako presoek aplikatu ohi zaien salbuespeneko erregimenean. Harrigarria bada ere, Hego Euskal Herritik indar okupatzaileak bidali nahi dituen ETaren beso exekutiboa izateaz akusatzen dituzten, 2016ko urriaren 15ean izandako taberna bateko istilu bategatik. Eta hori guztia ETak ekintza armatuak utzi eta

Altsasuko gazteen auzitegi muntaia polizial eta Diktadura garaian bezala, estatuak ez du erregimenaren indarra erabiltzen



sei urtera, armagabetzea gertatu denean eta publikoki iragarri denean desegingo dela.

Akusazioen proportzionaltasun ezak eta gogortasunak erakusten du inoiz depuratu ez eta ultraeskuindar eta torturatzailez betea dagoen eta diktadura frankistaren oinordeko aparatu honen krudeltasuna. Elementu horiek normaltasunez daramate aurrera beren aktibitate eta inpunite osoa dute; hori agerian geratu da Europako Giza Eskubideen Auzitegiak estatu espainiarren jarritako zigorrarekin, torturen salaketak ez ikertzeagatik (4.100 EAEn 1960 eta 2013 bitartean). Auzitegi berberak estatu espainiarra zigortu du “tratu umi-

liagarri eta ankerra” (itoaldiak, jipoi basatiak...) emateagatik Portu eta Sarasola ETako kideei atxilotu eta inkomunikazio aldiko bost egunetan.

Gazteen defentsak salatu du “epaiketa justua” izateko eskubidea urratu zaiela gazteei eta tribunalararen “beharrezko inpartzialitatea hautsi” dela, ukatu egin baititu defentsak aurkeztutako frogak gehienak eta lekukotasunak, “tartean, gertakariak izan ziren momentuan gazteekin zeuden pertsonak, taberna barruan eta kanpoan gertatu zena zehaztasunez kontatu zezaketena”.

Epaiketa hori beste probokazio eta adibide bat da estatu espainiarren eskala errepresiboarena. Euskal gazterien aurkako erre-

aurkako judizialari EZ! aparatuaren errepresioak kusten, ahultasuna baizik



presioarekin, estatuko botereek gero eta bidegabeagoa, desorekatuago eta jasanezinagoa den sistema sozioekonomikoaren, kapitalismoaren, aurkako masen borroka geldiarazi nahi dute, baina ezin dute lortu.

Gazteen, sindikalisten, etxe-kaleratzeen aurkako plataformetako kideen aurkako errepresioa beste hainbat kolektibotara hedatu da, besteak beste, gorrotozko delituaz eta terrorismoa goratzeaz akusaturako kolektiboetara: tuitarlariak, raperoak, agintari politikoak, adibidez CUPeko Anna Gabrielelek exiliotara alde egin behar izan du diktadurara garaian bezala ekintza politikoa jarraitzeko. Artista eta intelektuallak eta Alfredo, zeina kondena be-

tetzen ari baita 2005eko festetan kartoiez egindako panpin bat ateratzeko herriko presoaren irudi batekin dispertsio politika salatzen, eta Julen, zeinak errotulagailu batekin ETaren anagrama bat egiteagatik pareta batean eta kartzela zigorra betetzen ari da, bezalako gazteak kondenatzen dituzte.

Errepresio frankistari erantzuteko, mobilizazio masiboa kalean!

Auzitegi Gorenak eta Nazionalak bere sustraletara jo dute, diktadurara frankistak oposizio politikoa zapaltzeko sortu zuen Ordena Publikoaren Auzitegira, ehunka urteko

kartzela zigorrak ezarri zituen iritzia emateagatik eta ideia politikoak azaleratzeagatik. Gaur, atzo bezala, erregimenak chauvinismo espainolista suspertzen du eta kalera ateratzen ditu inpunitate osoa duten talde ultraeskuindarrak. Ofentsiba erreakzionario horren helburua da Ciudadanos, PSOE eta EAJren babesik gabe indarren egon ezin litekeen gobernu mantentzea.

Halere, eskala errepresio horren gainetik, gauza bat garbi dago: estatu aparatu neofrankista honen errepresioak milioika pertsona indarberritu ditu. Estatu aparatuaren errepresioaren gogortasunak, ez du erregimenaren indarra erakusten, ahultasuna baizik: Kataluniako herraren indar erakustaldia urriaren 1eko erreferenduma, urriaren 3ko greba eta abenduaren 21eko hauteskundeak, jubilatuen leherketa soziala azkenaldiko manifestazioetan, martxoaren 8ko greba feministarikaragarria, urtarileko manifestazio ikaragarria euskal preso politikoen alde... Horrek guztiak erakusten du kaleko mobilizazioa, borrokak elkartzeko eta antolatzea dela bidea. Gaur, atzo bezala, eskubide demokratikoen aldeko borroka eta errepublika sozialistaren aldekoa borroka bat eta bakarra da.

Euskal Herria Sozialistak eta Ezker Iraultzaileak gogor salatzen du Altsasuko muntaia, borroka soziala eta gazteria kriminalizatzeko muntaia guztiak. Gure elkartasuna adierazten diegu gazteei eta beren senitartekoei eta berehala eta terrorismo kargurik gabe askatzeko aldarrikatzen dugu. Era berean, Mozal Legea indargabetzeko eta Zigor Kodean sartu diren aldaketa errepresiboak erretiratzeke eskatzen dugu. Erantzun masibo eta irmoa antolatu behar da gobernuaren eta estatuaren deriba autoritario honen aurka, eta errepresioaren aurkako borroka hori ukatu dizkiguten eskubide demokratikoak, sozialak eta laboralak defendatzen dituen mobilizazio orokorrako batekin elkartu behar da.

Pentsioen igoera ziztrin eta lotsagarriari ez!

Kanpora PPren gobernua

MIGUEL MITXITORENA

Pentsionistak zutik eta borrokan gaude eta mobilizazio benetan indartsuak burutzen ari gara PPren gobernua-
ren aurka. Gobernu honek gosez hili-
lik nahi gaitu, pentsio duinekin egon
ordez. Gure bizitzako lanarekin sor-
tu dugu aberastasun hori, askotan 40
urtez kotizatu ondoren. Ohikoa den
bezala, Mariano Rajoy eta bere mi-
nistro Fatima Bañez gobernura hel-
du ziren zin eginez pentsioek eros-
ahalmena mantenduko zutela. Bada
hori galdu besterik ez dugu egin.

KPI zenbat hazi den baloratzen
sakonean sartu gabe, 2014tik gau-
de %0,25eko igoera ziztrinarekin. Ez
zaigu iristen, dozena bat arrautza ge-
hiago erosteko. Ez dezagun hitz egin,
pentsionistentzat jada benetako lu-
xu bihurtu diren oliba olioaz eta be-
harrezko beste produktuez. Pentsio-

nistak ez zituztela erasotuko promes
egin zuten, baina ikusi dugu ez du-
tela bete. Gogoan hartu behar du-
gu hori datozen hauteskundeetan.

2012tik aurrera osasungintzan,
hezkuntzan, mendekotasunerako
laguntzetan... murrizketak egiten
hasi zirenean, esan ziguten orduko
sakrifizioek etorkizun hobea edu-
kitzeko balio zutela. Egun, milioi-
ka familiak pentsionisten aporta-
zioei esker iraun dutenean, datuak
“burugogor” jarraitzen dute, baina
ez ministroak esaten zuen bezala:

- Pentsioek eros-ahalmena gal-
tzen dute eta soilik %0,25 berba-
liotzen dira.

- Pentsioen batz bestekoa hi-
leko 918 euroan dago eta ohikoena
650ekoa da.

- Pentsionisten %50 ez da iris-
ten gutxieneko soldatara eta %38
pobrezia mugaren azpitik bizi da.

- 10etik 4 pentsionistak beren
famiak sostengatzen lagundu du-
te krisian zehar.

Banakari ematen zaion dirua ge-
roz eta handiagoa den bitartean,
pentsioen Berme Funtza deusez-
tatu dute. Orain gizarte-seguran-
tza kredituen bidez finantzatzan da
eta banka berari interes handiekin
itzuli behar zaio dirua.

Ministroaren gutuna

Egunero bizi dugun errealitate hau
puntu gorenera iritsi zen, pentsio-
nistoi ministroaren gutunak iris-
ten hasi zitzaizkigunean. 2018ko
pentsioaren igoera %0,25 izango zela
esan ziguten. Gainera aurpegira ise-
ka egiten zitzaigun. Eskerrak ema-
ten zitzaizkigun, Espainia heredatu
zuten krisitik birsortzea baimendu
zuten zutabe bat izateagatik. “Es-





painia krisitik modu justu eta sozial batean irten da". Hitzontzikeria horiek guztiak pentsiodunen haserre eta sumina areagotu zuten.

Iruñean urtean zehar maiz ateratzen gara kalera pentsiodunak pentsioak hobetzea aldarrikatzeko. Ez dut gogoan eduki genuen azken asanblada, baina agian Zapateroren gobernuko garaietan izan zen. Gero PPko gobernuarekin mobilizazioak handitu egin dira. Orain ordea ez dira egiten asanbladak manifestazioen aurretik lehen bezala, jende gehiago biltzeko balio zutenak. Plataforma bat sortu zen, pentsiodunak krisiaren aurrean, sindikatuak eta afiliaturik ez zeudenak batzen zituena. Orain koordinadora hori da mobilizazioak deitzen dituenak. Mobilizazio gehienetan 1.000 pertsona elkartzen gara, batzuetan 2.000 inguru izatera iritsi gara.

Beste toki batzuetan kontzentrazioak eta manifestazioak espontaneoagoak izan dira. Sare sozialetatik deitu dira, Bilbon edo Ba-

rakaldon bezala, eta udaletxearen aurrean kontzentrazio jendetsuak egin dituzte.

Mobilizazio horietan argi eta garbi esan dira gauzak. "Tontotzat hartzen gaituzte" zioen emakume batek. "Bizitzako garai honetan, lotsagarria da tontotzat hartzea. Niri igo didaten apurra beraiek hartu zezaketen, ikusteko zer egiten duten horrekin. Igo didatenarekin, nahiago dut ezer ez igotzea. Hainbeste urte kotizatzen eta batzuk mantentzeko eta goxo euren poltsikora eramaten dutela ikusteko, lotsagarria. Oso iraingarria".

Otsailaren 22ko manifestazioak ikaragarriak izan ziren. Nahiz eta informazio eskasa izan, pentsiodunak masiboki ateratu ziren kalera. Denaren gainetik pentsiodunak mobilizatzen jarraituko dugu, zeren gure bizi baldintzak okerrera doaz eta gobernu hau arduratuago dago bankari eta enpresariez, gizartearen gehiengoaz baino. Buruzagiek sindikalak oso epelak dira alda-

rrikapenetan. PPren gobernuak ere hori aitortzen du. Baina beren bulegoetatik jaitziko balira eta kalera aterata, ikusiko lukete langileak eta pentsiodunak nazkaturik gaudela. Nazkaturik gaude, betikoak baitira irabazten ateratzen direnak gure sakrifizioen kontura. Borrokak indartsuagoa eta zabalagoa izan behar du: soldata duinak, enplegu prekarioz ez, lan erreformaren aurka borrokatu...

Gure aldetik borrokak aurrera jarraitzen du. Hasteko, koordinadorak Martxoaren 8an kalera ateratzera deitu du eta, bestetik, martxoaren 17an berriro aterako gara indar osoz kalera. Mobilizazio hauek aurrera jarraitu behar dute, langabetu, langile, gazteak eta prekaritateak jasaten duten sektore guztiak elkartuz.

**Pentsio duinen alde,
gutxienez 1.100€
Badago dirua,
bankariek daukate!**

KONTRAPORTADAN HASTEN DA

BÁRBARA AREAL

*Emakume Aske eta Borrokalariak
Ezker Iraultzailea*

Argentinatik AEBetara, Poloniatik Egiptora, milioika emakume ari gara iraultza bat aurrera eramaten, eta hori ez zaie oharkabea pasa munduko boteretsuenei. Aipaturiko iraultza honek irismen historikoa dauka eta bere sustraiak bete-betean ditu erroturik sistema honen krisi ekonomiko luzean eta munduko populazioaren erdiak duen etorkizunera begirako esperantza faltaz elikatzen da. Emakume zein gizon boteretsu horiek —nazioarteko plutokrazia bera osatzen dutenak— desafio erraldoi honen oso jakitun dira, datorren martxoaren 8an inoiz ez bezalako greba feministan gauzatuko dena, klase borrokarako eszenatoki ezinbestekoa bilakatu baita. Horretarako, boterearen propaganda zentroek jarri dute euren makinaria lanean buru-belarri, emakume langilearen askapenerako mugimendu erraldoia hutsaltzeko asmoz —bere eduki iraultzailea karrakatuz, hauxe bera asimilatzeke—.

Biktimak borrero bihurtuta

Eraso zitalenetan zitalena dugu Catherine Milletek bidalitakoa, *Me-Too*-ren kontrako manifestu famatuana, ehun bat emakume frantsesek sinatu zutena. Emakume estatubatuarren mugimendua mehatxu garbia da, argudiatzen du Milletek, “puritanismo” berria berpiztu eta gizonen aurkako “sorgin-ehiza” bat abiarazteko arriskua baitakar.

Catherine Millet mespretxu kru-del baten erakusgarri agertu da, bere manifestu-kideekin batera, indarkeria matxistaren biktimekiko: “Asko sentitzen dut bortxatua ez izana, horrela bortxaketa bat gainditzetik ere badagoela erakusteko” esan zuen ez duela asko elkarriketa batean. Beste batean, argi utzi zuen berriz ere moral usteldua

Sistemak masen borroka Euren morala

duela erabat: “Duela gutxi, gaztetan bortxatua izana zen emakume abokatu baten elkarriketa irakurri nuen. Honek bere bezero emakumeei ez salatzeke eta auzitegitara ez joateko aholkatzen zien, beraien sufrimenduaren menpekoak izaten jarraitu nahi ez bazuten. “Ondorio fisiko larriak dauden kasuetan salbu, nik uste dut buruak gorputza garaitu dezakeela” (*El País*, 13/01/18).

Enpatia ez da inoiz izan burgesiaren bertutea. “Izate sozialak kontzientzia determinatzen du”, baieztatzen zuen Marxek, eta idazle, aktorea, filosofo, kazetari eta arte-kritikari emakumeen talde honek adibide paregabea eskaintzen du, diruaz gainezka bizi direlako, luxu, arropa eskusibo, etxe galantak eta gizarte-aintzatespena daukate-lako barra-barra.

Generoa eta klasea

Ez al diote feministek hitza liberatu dela? Ba, horrela bada, gure hitzak haien hitzak bezain beste balio du.
Catherine Millet

Emakume langilearen bizitzak egon behar du inguratuta erosotasun berdinez, garbitasun berdinez, higiene berdinez, edertasun berdinez, orain arte klase dirudunetako emakumeen ingurunea osatzen baino ez zuena.

Alexandra Kollontai,
Komunismoa eta familia (1918)

Euren baldintza materialek ez dute zerikusirik emakume zapaldu, dis-



kriminatu eta abusatuek jasan behar dituztenekin, bai etxean bai fabriketan edo langabezia. Lehenengoak emakume arrakastatsuak dira kapitalismoari esker. Hortaz, kapitalismo hori bera defenditzen dute, hori egiteak matxismoaren aldarrikapen latza egitea esan nahi badu ere. Hain da horrela, non manifestuaren beste sinatzaile batek baieztatzen baitu “orgasmo bat eduki daitekeela bortxaketa batean”.

feministari erantzuten dio eta geurea




Ez dira iritzi bakanak. Emakume burgesaren ideologia da, emakume burgesaren baloreak eta emakume horiek ideologia eta balore horien bozeramaile publikoak. Frantzia, AEBn, espainiar Estatuan... adibideak soberan daude. Mónica Oriolek, Enpresaburuen Zirkuluko zuzendariak, nahiago du “45 urte edo gehiagoko emakume bat edo 25 urte baino gutxiagoko bat, emakumea haurdun geratuz ge-

ro, arazo bilakatzen delako”. Horixe laburpen ondradua soldatapekoak eta enpresariak lotzen dituen “ahizpatasunaz”.

Askatasuna? Berdintasuna?

Gizon batek gogaitzen zaituenean, askatasuna duzu esateko hori egiteari utz diezaion.

Catherine Millet



Askatasunaren oinarria da, beraz, geure buruen eta kanpoko naturaren gaineko menderatzea (...) banakoen existentzia-bitartekoengatik larritasunik gabe...
Federico Engels, *Anti-Dühring* (1878)

Ez, emakumeak ez gara berdina genero berdina izateagatik. Askatasun desberdinez mintzatzen zara zure paristar bulegoan, non Art Press aldizkaria zuzentzen baituzu, edo zure lanpostuan zaudenean El Corte Inglés-en eta zure nagusiak “chochito” deitzen dizunean (*El País*, 6/12/16). Gure askatasuna beste faktore batzuek baldintzatzen dute: gure klase sozialak, etxe-esklabotzatik emantzipatzeko ditugun aukerak, independentzia ekonomikoa eta goza genezakeen heziketa kulturala.

Milioika emakumeentzako hain da mugatua askatasun hori non ezin baitute ihes egin umiliatu, jipoitu eta erailtzen dituztenetatik. Ez da beharrezkoa marxista izatea hori ulertzeko. NAO-k honakoa dinosku emakume eta neskatila pobreen inguruan: “aukera gutxiago dituzte harreman biolentoetatik ihes egi-



teko, diru-sarrera eta baliabide-ga-beziagatik, pairatzen baldin badute bortizkeria domestikoa zein biko-tearen aldetiko bortizkeria” (www.unwomen.org, bit.ly/2EFRJv0).

Gure askatasuna ez da horrelakoa, emakumeak izateaz gain, langileak ere bagarelako eta gure kateak existitu egiten dira. Esklabu baten esklaboak gara, eta guztiok, langile klaseko emakume zein gizonok, burgesiarren jabetza gara. Soldatapeko esklabo modernoak garenez gero, burges batetik behar duenean baino ez da erosten gure lana. Hori dela eta, antzinako esklaboek ez bezala, ez dugu existentzia ziurtaturik.

Justizia?

Milleten arabera, “justiziak akatsak ditu eta ukaezina da gauzek ihes egiten diela, baina bizi garen gizarteak onartzen du gizartea bera dela epaitzeko arduraduna eta ez auzitegi popular bat”. Ideia horiek ez dira inolaz ere inuzenteak:

defendatzen dute Estatu kapitalistak berak gure segurtasuna “zaindu” behar duela, emakumeen aurkako bortizkeria babestu eta sozializatzen duen bitartean. Horregatik, Millet bera ere bada kontsekuentea horrelako justizia baten alde agertzean, hots, bere klaseko izaera batasia erakusten duena egunero, matxista eta patriarkala.

Tarana Burkek, Harlem auzo newyorktarreko aktibistak, azaltzen duen legez: “*MeToo* biziraun dutenen arteko elkarrizketak hasi zuen txinparta da: jakizu ez zaudela bakarrik, niri ere gertatu zait eta” (eldiario.es, 11/12/17). Emakume erasotuak Milleten justiziagatik abandonaturik sentitzen dira. Mundu osoko *Juana Rivas*-ak, gaizkileak bihurtuta euren seme-alabak babesteagatik tratatu txarrak ematen dizkieten aitengandik; milioika emakume asesinatuak, martiritatuak eta bortxatuak, La Manada-k modu basatian erasoturiko neska gaztea bezala Iruñean... haiek inoiz ez dute

aurkituko ez kontsolamendurik ez justiziarik Milleten gizarte “aske eta justuan”.

Sexualitatea

Gazteagoa nintzenean, inoiz gizonen bat etorri zitzaidan nire kontra igurtzera garraibide publikoetan, eta ez nintzen horregatik hil edota ezindua bilakatu
Catherine Millet.

“Erreprimitu hutsa zara. Langile borrokalaria izan nahi baduzu, sexualki askatu behar zara”. Eta nik horri erantzuten nion: “Askatuko naiz nahi dudanean eta nik nahi dudanarekin. Eta hori erreprimetua izatea bada, banaiz eta kitto”.

Paqui Jiménez, langilea eta 1971eko Bartzelonako greban borrokalaria

Fintasun intelektualik ez dugunoi erakusten digu Milletek onberatasunez heziketa sexuala. Izan ere, berak baieztatzen du “harreman sexualak izatea eta desira sentitzea jarduera bananduak direla. (...) Ez nabil handizkatzen, diodan 35 urteak bete arte ez nuela kontuan hartu neure gozamina harreman sexual baten helburutzat” (www.letraslibres.com, bit.ly/2nNb1a2). Hori al da “bere” askatze sexuala? Herria garenez gero, erretrauen bildumatik abiatuta erantzungo diogu: Esaidazu zertaz presumitzen duzun, eta esango dizut zer ez duzun.

Aitorpen horiek “hogeita hamar bat gizonek berataz gozatu dutela ordu batean” bezalako informazioarekin batera datoz, bere *La vida sexual de Catherine M.* liburuan. Ez gara bere sexualitatearen jendarmeak izango, bere morala ez baita geurea. Ez dugu promiskuitatzat joko, puritanismoak gogaitzen gaituelako, matxismoak, homofobiak eta transfobiak gogaitzen gaituzten bezala. Pertsonen intimitatea inbaditzearen aurkakoak gara, soilik exijitzen dugu egiazko askatasuna indibiduo bakoitzak erabaki dezan zer nahi duen eta zer ez, bere harreman sexualetan —honek, bide batez, prostituzioa izurri kriminal bat bihurtzen du—. Eta, hortaz, borrokan jarraituko dugu, edozein enpresarik, nagusik, bikotek, familiarrek, auzokidek edo lankidek emakume bat bortxa ez dezan.

Borrokak aske egiten gaitu

*Utzi behar diogu sinesteari
emakumea beti dela biktima.*
Catherine Millet

*Antola zaitetz, antolatua izan nahi ez
baduzu.*
Kellyak, pisuetako zerbitzariak.

Emakume langileen zapalkuntza ez da indibidualki prozesa dezakegun sinesmen bat, ezin hobeki dokumentaturiko errealitate bat baizik, gizateriaren erdiaren sufrimendua eragiten duena.

Izan ere, “berdintasuna, askatasuna eta justizia” kontzeptu burgesa da, hain zuzen ere, zapalkuntza moral, ideologiko eta ekonomikoaren biktima bihurtzen gaituena eta Milletek, Angela Merkelek, Esperan-

za Aguirrek, Cristine Lagardek eta beraien klase kideek eusten duten kontzeptu bera. Kapitalismoa matxista izan zen eta izango da. Hala ere, horri dagokiolarik, Millet lasai egon daiteke. Ez gaude prest babesgabeko biktimak izateko. Espartarrak eta Kelly-ak gara, bizirik, aske eta borrokalari nahi ditugu geure buruak. Badakigu inork ez digula ezer oparituko, baina martxan gaude eta ez dugu etsiko, gure gogo bi-
zia betetzen ditugun arte.



Sistemak masen borroka feministari erantzuten dio

Euren morala eta geurea

Martxoaren 8ko greba feministak historia egin du. Aurrekaririk gabeko mobilizazio eguna izan da eta ez da errez ahaztuko. Azken aldian, emakume langile eta borrokalarien

arteko harremanaren indartzearen lekuko eta protagonista izan gara, inoiz baino gehiago batu baitira egoera lasgarri honetatik as-

katzeko, kateak apurtzeko. Lapikoa bor-bor dago eta begiak sutan. Mobilizazioak erabat agerian utzi ditu eskuineko buruzagiak, gizon zein emakumeak, erasoen benetako erantzuleak; baita hankaz gora utzi ere greba egun hau deskafeinatze edo saboteatzeko alderdi zein sindikatu erreformistetako buruzagiak asmoak. Martxoaren 8an izan dugu masen, eta eskuarki emakumeen, izaera iraultzailea ikusteko parada ezin hobe, eliteei erakusteko ez gaudela prest euren esklabo material eta sexualak izateko eta nekez isilaraziko dutela munduko populazioaren erdia.

Antolatu zaitez

EZKER 
IRAULTZAILEAN

Euskal Herria Sozialista baten
alde borrokatzeko

12. ORRIAN JARRAITZEN DU

- Kanpora 155a! Preso politiko guztiak askatu. Kanpora Polizia Nazionalaren eta Guardia Zibilaren indarrak Kataluniatik.
- Lan eta pentsioen kontraerreformen indargabetzea. Jubilazioa 60 urtetara soldataren %100arekin eta errelebo kontratuak gazteentzat.
- 1.100 eurotako gutxiengo soldata eta 35 orduko lanaldia astean, soldata murrizketarik gabe.
- Etxe kaleratzeak debekatzea. Etxebizitza publikoen parkeak alokairu sozialekin, bankuen eskuetan dauden etxebizitzak desjabetuz.
- Pribatizaturiko zerbitzu publikoak bermunizipalizatzea, langileak mantenduz eta ugarituz eta lan eskubideak errespetatuz.
- LOMCE eta 3+2 kanpora. Kalitatezko hezkuntza publikoa, demokratikoa eta doakoa, haurtzarotik unibertsitatera arte.

- Osasungintza publiko duin, doako eta unibertsalerako eskubidea.
- Benetako elkartasun konkretua errefuxiatuekiko: kuporik eta barneratze esparrurik ez. Atzerriko Legearen indargabetzea eta CIEak ixtea.
- Adierazpen, bilera eta antolakuntza eskubideak osorik bermatzea. Mozal legearen indargabetzea.
- Bankaren eta sektore estrategikoen nazionalizazioa, pertsonak erreskatatzeko eta gehiengoaren ongizatea bermatzeko.
- Autodeterminazio eskubidearen alde, Catalunyan, Euskal Herrian eta Galizan. Errepublikak sozialista katalanaren alde, eta errepublikak sozialista federal baten alde, Estatu espainiarra osatzen duten herrien eta nazioen batasun libre eta boluntarioan oinarritua, horrela erabakitzen badute.